



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

2025

2024-2026 Plan estrategikoa ____ 4

2025ean sortutako gizarte-balioa ____ 5

1. Pertsonak ____ 6

Orientazioa ____ 8

Ibilbide soziolaboralak ____ 9

Garapen Soziolaborala ____ 10

Zerbitzu Okupazionala ____ 11

Prestakuntza ____ 12

Lagundutako Enplegua ____ 14

2. Helburu soziala duen enpresa-jarduera ____ 15

3. Gizarte-kohesioa ____ 18

Gizartean parte hartzea ____ 19

Euskararekiko konpromisoa ____ 20

Berdintasuna ____ 21

Ingurumena ____ 22

Lantegi Batuak irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, desgaitasunen bat duten pertsona guztiei lan- eta okupazio-aukerak eskaintzen dizkiena, modu lehenetsian desgaitasun intelektuala eta/edo garapenarena dutenei eta Bizkaikoak direnei, ahalik eta garapenik eta bizi-kalitaterik handiena lortzen laguntzeko eta bidezkoagoa eta solidarioagoa den gizartearen alde egiteko.

Hori lortzeko, ekimen berritzaile, jasangarri eta lehiakorrak garatzen ditugu, erakundeko pertsona guztien gaitasunak indartuz eta haien bizitza-proiektua lortzeko laguntza egokiak emanez.

3340

Pertsona

% 80

**Desgaitasuna
duten pertsonak**

% 44

**Adimen-
desgaitasuna
duten pertsonak**

111 milloi €

Salmentak

292 milloi €

Gizarte-balio integratua
Valor social integrado

2024-2026 Plan estrategikoa

1. ERRONKA

Gizarte-balioa sortzea

Gure lehentasunezko
interes-taldeei
sortutako gizarte-
balioa handitzea

- Familiak
- Erabiltzaileak
- Langileak
- Bezeroak
- Hornitzaileak
- Administrazioa
- Gizartea

2. ERRONKA

Pertsonen garapena

Pertsona guztien
garapena sustatzea

3. ERRONKA

Merkatu- jarduera


Gure jardueraren
hazkundera/
jasangarritasuna

4. ERRONKA

Garapen edo eraldaketa teknologikoa

Teknologian
inbertitzea helburu
horiek lortzeko

2025ean sortutako gizarte-balioa



Gizarte-balio integratuak gure interes-taldeetan sortzen dugun inpaktu globala islatzen du. Kontabilitate Soziala aplikatuz lortzen da. Kontabilitate Sozialak merkatu-jardueren bidez nahiz diru-transakziorik islatzen ez duten baina interes-taldeeii balioa ematen dieten jardueren bidez sortutako onura integratzen du.



1. Pertsonak

2025ean, Lantegi Batuak 65 milioi euroko **gizarte-balio integratua** (GBI) sortu zien desgaitasuna duten **pertsonei eta haien familiei**, diru-sarreraren, zaintza-ordu liberatuen, mantenuaren, gastu medikoen eta abarren bidez.

Gainera, langileei sortu zitzaien GBI 42 milioi eurotik gorakoa izan zen, soldata edo prestakuntza bezalako kontzeptuetan.



1. Pertsonak

3340

Pertsonak

1232 emakume

2108 gizon

% 80

**desgaitasuna duten
pertsonak dira**

% 33 emakumeak

% 67 gizonak

1458

**adimen-desgaitasuna
duten pertsonak
guztira**

492 emakumeak

966 gizonak

**Industria-
sektorean**

2118

**desgaitasuna duten
pertsonak dira**

674 emakume

1444 gizon

1239

**adimen-desgaitasuna
duten pertsonak dira**

422 emakume

817 gizon

**Laguntza-
arlotan**

36

**desgaitasuna duten
pertsonak dira**

19 emakume

17 gizon

**Zerbitzuen
sektorean**

516

**desgaitasuna duten
pertsonak dira**

190 emakume

326 gizon

216

**adimen-desgaitasuna
duten pertsonak dira**

68 emakume

148 gizon

3

**adimen-desgaitasuna
duten pertsonak dira**

2 emakume

1 gizon

Orientazio-zerbitzuaren bidez arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu, pertsonari bere garapenerako enplegu bat edo aukerarik onenak lortzen laguntzeko, bere helburuak eta xedeak definituz. Pertsona bakoitzaren gaitasun eta premietara ondoen egokitzen den postua zein den zehazten laguntzen dugu.

2025ean zehar, Enplegarritasunari Laguntzeko Zerbitzuko lantaldeak 6 enplegu-topaketatan parte hartu zuen, Lantegi Batuaken garapen profesionalerako aukerak erakusteko, bai ikasleei, bai langabezian dauden pertsonei. Era berean, 7 prestakuntza-zentroekin bildu zen, eta ikasleak gure instalazioetan hartu zituzten edo euren zentroetara joan ziren.

1563

**orientazio-eskaera
jaso dira**

757 emakumeenak
806 gizonenak
(horietatik 56 adimen-
desgaitasuna duten
emakumeak dira, eta 114
adimen-desgaitasuna
duten gizonak)

1158

**informazio-
ekintza**

desgaitasuna duten
pertsonentzat eta haien
familientzat
(aurrez aurreko arreta, telefono
bidezko arreta, dokumentazio-
bidalketa)



2392

**orientazio-ekintza
bideratu dira**

(taldekakoak, banakakoak,
praktiken eta beka
profesionalen kudeaketa, etab.)





Pertsona bakoitzari bere gaitasunen arabera egokitutako inklusio-ibilbideak

Lantegi Batuaken, pertsona bakoitzak ibilbide soziorabotal pertsonalizatua egiten du bere gaitasunei eta beharrei erantzuteko.

Hainbat laguntza-metodologiaren bidez, lanpostu bakoitza egokitu egiten da eta banakako planak garatzen dira. Plan horiek lagun egiten diote pertsonari ibilbide horretan zehar, orientaziotik, prestakuntzatik, okupaziotik eta enplegutik abiatuta.

1. **Pertsonak** Ibilbide soziorabotalak

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

785

**Zerbitzu
Okupazionalaren
erabiltzaile guztira**

257 emakume

528 gizon

1885

**pertsona lanean
egon dira
Enplegu Zentro
Berezian**

626 emakume

1259 gizon

zerbitzu-jardueretan,
industria-jardueretan eta
laguntza-arloetan.

134

**pertsona
Bizkaiko
enpresetan**

54 emakume

80 gizon

173

**pertsonak aurrera
egin dute maila profesionalean:**

67

**pertsonak
Zerbitzu
Okupazionalaren
barruan**

46

**pertsonak
Enplegu Zentro
Bereziaren
barruan**

40

**pertsona
pasatu dira
Zentro
Okupazionaletik
Enplegu Zentro
Berezira**

20

**pertsona pasatu dira Bizkaiko enpresetara,
Lagundutako Enplegua Programaren bidez**

13 emakume

7 gizon

1. **Pertsonak** Garapen soziolaborala

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

Laguntza-plan indibidualizatuak

Laguntza-plan indibidualizatuek pertsona bakoitzari bere bizi-kalitatea hobetzeko eskaintzen zaizkion laguntzak jasotzen dituzte. Interes, jomuga eta premia indibidualetatik abiatuta ezartzen dira, eta, modu pertsonalizatuan, plan horretan jasotzen dira.


% **71,4**
helburu
lortuta

% **79,3**
jomuga
lortuta

821

**adimen-desgaitasuna eta gaixotasun
mentala dituzten pertsonak**

beren laguntza-planak, garapen-
jomugak eta lanpostuen egokitzapen
indibidualizatuak berrikusi dituzte.



1. **Pertsonak** Zerbitzu Okupazionala

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

Zerbitzu Okupazionalak gizarte-inklusoia eta ongizatea errazten dizkie laguntza-premiak dituzten pertsonen, gizarte-bizitzan duten parte-hartzean oinarritutako banakako ibilbideak garatuz.

Horretarako, Lantegi Batuakek programak hainbat testuingurutara egokitutako programak eskaintzen ditu, pertsonen autonomia handiagoa garatzen eta bizikaltatea hobetzen laguntzeko.

Tradizionalki, pertsonen okupazioa nagusiki lanera eta enplegurako orientaziora bideratu izan da. Gaur egun, ordea, etengabeko ikaskuntzak, ongizateak eta osasunak, baita komunitate-bizitzan modu aktiboan parte hartzeak ere, gero eta garrantzi handiagoa dute, eta dimentsio horien arteko oreka sustatzen da.

2025ean, Lantegi Batuakeko **Zerbitzu Okupazionalaren** eredu berria hedatzen hasi zen. Hedapena Getxon eta Zorrotzan abiatu zen, eta pixkanaka gainerako zentro eta zerbitzuetara zabalduko da.

**BIZITZA OSOKO
IKASKUNTZA**

LANA



**ONGIZATEA ETA
OSASUNA**

**BIZITZA
KOMUNITARIO,
SOZIAL ETA
ZIBIKOA**

Zahartze aktiboari laguntzeko Zerbitzu Okupazionala

Zahartze aktiboari laguntzeko **Egokiplan** Zerbitzu Okupazionalaren helburua da beharrezkoak diren laguntzak, jarduerak eta dinamikak sortzea adimen-desgaitasuna duten pertsonen zahartze goiztiarraren zantzuei aurre egiteko.

2025ean; 25 plaza berri

9

zentro:

Getxo, Zalla, Urkiola-Otxarkoaga, Sondika, Txibila, Basauri, Erandio, Derio eta Plazakola.

105

erabiltzaile
guztira

1. **Pertsonak** Prestakuntza

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

Lantegi Batuaken, **prestakuntza**, behar diren laguntzekin batera, pertsona guztien **garapen** pertsonalerako funtsezko zutabeetako bat da.

Prestakuntza egokitua eta praktikoa eskaintzen dugu, bai pertsona bakoitzaren gaitasunak garatzera eta bai gure bezeroen beharrei ahalik eta erantzun onena ematera bideratua.

43111

prestakuntza-
ordu

181

prestakuntza-
ekintza

Pertsonen % **75,2_k**
prestakuntza-ekintzaren batean
parte hartu dute



Zerbitzu Okupazionalako pertsonen

% **81,6_k** **prestakuntza jaso dute**

% 82,2 emakumeak dira

% 81,2 gizonak dira

1. Pertsonak Prestakuntza

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

Lan Eskola

Lan Eskolaren bidez, prestakuntza egiaztatua garatzen dugu Lantegi Batuakeko zentro homologatuetan edo lankideenetan, enpleguan arreta jarrita.

Prestakuntza teorikoa tutoretzapeko praktikekin eta laguntza indibidualizatuarekin osatzen da, bai Lantegi Batuaken, bai Bizkaiko beste enpresa batzuetan.

PRESTAKUNTZA- EKINTZAK:

5

prestakuntza-modulu

(lanbide-ziurtagiriek
lotutakoak) eta prestakuntza-
espezialitate (565 ordu)

Parte-hartzaileak:
16 emakume
30 gizon

Akademia egokitua

2025ean Akademia Egokitua jarri zen martxan berriro, Lantegi Batuakeko adimen-desgaitasuna duten **31** pertsonari laguntzeko Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren EPEen prestaketan.

Aurrez aurreko eskolez gain, pertsona guztiek online plataformarako eta edukietarako sarbidea izan zuten, ariketak eta material eguneratuak eskuratu ahal izateko.

2018az geroztik, **400** pertsonak baino gehiago jaso dute laguntza hori, deitu diren EPEak prestatzeko.



% **59**
**adimen-
desgaitasuna
duten pertsonak
dira**

% **54,35**
kontratazio egin dira
prestakuntza amaitu
eta 6 hilabetera
% 48 emakumeak
% 52 gizonak

Txandakako prestakuntza

xandakako prestakuntza prestakuntza dualaren modalitate bat da, ikaskuntza teorikoa eta lan-esperientzia errealak uztartzen dituen. Eredu horri esker, parte-hartzaileek eskola-orduak eta enplegua bateratzen dituzte, ikasgelan eskuratutako ezagutzak lan-ingurune errealean aplikatuz.

2024an abian jarritako programak hazten jarraitu zuen **2025ean**. Urrian, Industria Muntaketako **17 pertsonako** talde berri bat gehitu zen.

Programa Zerbitzu Okupazionalerako erabiltzaileei zuzenduta dago, enplegurako lehen urratsa ematen laguntzeko. Ikasleak Muntaketa Osagarriak eta Elektronika bezalako arloetan prestatzen dira, baita gaitasun komunitan ere, hala nola informatikan, digitalizazioan, trebetasun soziolaboralean, etab.

1. **Pertsonak** Lagundutako Enplegua

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

2025ean, Lagundutako Enplegua Programak **30 urte bete zituen.**

Hiru hamarkadatan zehar, desgaitasuna duten 300 pertsonari baino gehiagori lagundu diegu Bizkaiko enpresetan, industrian eta zerbitzuen sektorean enplegua lortzeko bidean. Gaur egun, 250 enpresak baino gehiagok ezagutzen dute gure programa, eta 380 baino gehiago dira harekin lankidetzan aritu diren enpresak.



Lagundutako Enplegua programaren helburua desgaitasuna duten pertsonen inklusioa gure lurraldeko enpresetan da.

Adimen-desgaitasuna duten pertsonak Bizkaiko enpresetan kontratatzea lortzeko helburuarekin, Lagundutako Enplegua programak aholkularitza ematen die enpresei, eta lagundu egiten die kontratazio-prozesu horretan. Gainera, lanposturako egokiena den pertsona hautatzen du, eta lanposturako prestakuntzaz eta jarraipenaz arduratzen da.

270

bisita egin dira enpresetara

(prospekzioa, legea betetzeari buruzko aholkularitza eta kontratazioa)

20

kontratazio berri egin dira 20 enpresa arruntetan

2045

lan-prestatzaileen jarraipen egin dira

134

pertsona kontratatatu dira –54 emakume eta 80 gizon–, 106 enpresetan

2. Helburu soziala duen enpresa- jarduera

**Profesionalizazioa, apustu teknologikoa
eta gure prozesuen hobekuntza:**

Horiek dira gure bezeroei –industria-sektorekoei nahiz zerbitzuen sektorekoei– ematen diegun zerbitzuaren gakoak.

Beren proiektuekin inplikatzeko gara, industria-teknologiak eta -zerbitzuak kanporatzearen bidez.

Enpresen eta Administrazio publikoen beharretara egokitutako zerbitzu-gama zabala daukagu bizitegi-sektorean, zerbitzu publikoetan, autonomia pertsonalean eta abar.

111 milloi €
fakturazioan

3,3 milloi €
inbertsioetan

50 milloi €
balio erantsian
36 milloi € industrian
14 milloi € zerbitzuetan

172
bezero berri
34 industrian
138 zerbitzuetan



2. Helburu soziala duen enpresa-jarduera

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

**Lantegi Batuaken gure bezeroen
beharrak lan-aukera
bihurtzen ditugu:**


Industria

- Elektronika
- Muntaketa multiteknologikoak
- Kable-instalazioak
- Metalen eraldaketa
- Logistika-soluzioak eta manipulazio-lanak
- Inprimaketa digitaleko zerbitzuak

Zerbitzuak

- Garbiketa
- Lorezaintza
- Dokumentu-kudeaketa
- Vending
- Etxerako janari-zerbitzua
- Publizitate-banaketa, garraioa eta barne-posta
- Facility services

DIBERTSIFIKAZIOA



2. Helburu soziala duen enpresa-jarduera

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

Industria-jarduera

2025ean, lurretan kokatutako Anboto zentro berria aurkeztu genuen. Bertan, jarduera **nagusia metalen eraldaketan eta logistika integralean oinarritzen da.**

Bestalde, **Etxebarriko eta Gernikako** gure zentroetan instalazioen egokitzapen sakona egin zen, pertsonen beharrei nahiz ekoizpenaren eskakizunei erantzuteko, eta, aldi berean, gure karbono-aztarna murrizteko bidean aurrera egiteko.

Matelec-en eta Azpikontratazioan parte hartu genuen, gure industria-zerbitzuen kanporatze-eskaintza ezagutarazteko bi hitzordu estrategikotan.



Zerbitzu-jarduera

Zerbitzuen arloko gure jarduera erritmo onean mantendu zen urte osoan zehar.

Horren erakusgarri dira berritu genituen kontratu publiko garrantzitsuak; besteak beste, Zornotzako eta Igorreko garbiketa-zerbitzuak eta Plentziako lorategi-zerbitzua.

19 milioi €-ko balioa sortu genien gure hornitzaileei eta 134 milioi €-koa gure bezeroei lehiakortasun-kontzeptuetan, egindako erosketen deslokalizazioa eta balio erantsia saihestuz, besteak beste.



3. Gizarte- kohesioa

Gure lurraldean gizarte-kohesioa bultzatzen dugu, eta, gainera, gizarte-inpaktua sortzen dugu.

2025ean, Lantegi Batuak 292 milioi €-ko gizarte-balio integratua (GBI) sortu zuen.

Kontabilitate sozialaren bidez, ekonomia tradizionalen ikusten ez diren balioak neur ditzakegu, hala nola pentsioetako aurrezkia, osasun-gastuak edo prestakuntzan egindako inbertsioa. Balio horiek guztiek eragina dute gizartean, eta gizartea garatzen laguntzen dute.

2025ean, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta garatzea lortzeko egin ditugun ahaleginek inpaktu hau izan zuten gizartean:

- **67 milioi €-ko** gizarte-balio integratua, Administrazio publikoei sortutakoa (pentsio ez-kontributiboetako aurrezkian, familia-zaintzan, osasun-prestazioetan, enplegu-sorkuntzan...)
- **136 milioi €** Gizarteari (balio erantsian, soldatetan, zergetan)



3. **Gizarte-kohesioa.** Gizartean parte hartzea

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

603 ekintza komunitatean

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen –batez ere Zerbitzu Okupazionalaren erabiltzaileek– lankidetzako hainbat jarduera komunitario eta pedagogikotan parte hartu zuten, hala nola kultura, kirol edo prestakuntzako jardueretan, bisitetan, etab.



Bisitak

2025ean **352** pertsona etorri ziren gu ezagutzera.

Urtean zehar, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasle-taldeak hartu genituen, bai eta gizartearen eta desgaitasunaren arloko estatuko, Europako nahiz Latinoamerikako entitateetako ordezkariak ere.

12 jardunaldi

Gure garapen soziolaboraleko eredua, gure enplegu-aukerak, kontabilitate sozialaren aplikazioan izandako esperientzia edo inklusiorako eta enplegurako prestakuntzan egiten ditugun praktika berritzaileak partekatzen ditugu jardunaldi horietan nagusiki.

Unibertsitate-BEKAK

Urtero, desgaitasuna duten pertsonentzako bekak bultzatzen ditugu, Deustuko Unibertsitatearekin, EHUrekin, UNIREkin eta Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan. 2025ean deialdi berri bat abiarazi genuen, 15 urte igaro ondoren, ikasleentzat edo titulatu berrientzat.

Lantegi Batuak erakundearen aipamen berezia

2025ean, Estrategia Empresarial egunkariak urtero antolatzen duen José Ignacio Arrieta Enpresa eta Gizarte Sarien barruan, aipamen berezia jaso genuen Bizkaian desgaitasuna duten pertsonen inklusioaren alde egiten dugun lanarengatik.



3. **Gizarte-kohesioa.** Euskararekiko konpromisoa

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces



Euskararen erabileraren normalizazioa

Gure erakundeetan euskararen erabilera bultzatzeko eta normalizatzeko 2022an hasitako proiektu estrategikoarekin jarraituz, 2025ean hizkuntza-planeari aurrera egiten jarraitu genuen, egiturazko eta sentsibilizazioko hainbat ekintzarekin.

Online nahiz gure instalazioetan eskaintzen den prestakuntza-programarekin jarraitu genuen. Loian abian jarritako lehen esperientziaren ondoren, programa Sondikara zabaldu zen.



Aurten ere, «Berbatratuak» ekimenarekin bat egin genuen. Horren bidez, zentro, zerbitzu eta laguntza-arloetako 400 pertsonak baino gehiagok konpromisoa hartu zuten beldurrak gainditu eta euskara beren lantokietan erabiltzeko. Aurreko urteetan bezala, Euskaraldian eta euskara bultzatzea helburu duten hainbat enpresa-forotan parte hartu genuen.



3. **Gizarte-kohesioa.** Berdintasuna

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces



Berdintasuna

Aurreko urtean hasitako autodiagnostikoaren ondoren, 2025ean Lantegi Batuaken I. Kontziliazio Plana aurkeztu zen. Planarekin batera, barne-hedapenerako kanpaina bat eta hainbat prestakuntza-ekintza antolatu genituen. Nabarmentzekoa da, gainera, harrera-prozesuan txertatu dela laneko jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko protokoloari buruzko prestakuntza.

Urtero bezala, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak bultzatu genituen martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren harira.

Emakumeen Nazioarteko Eguna lanean normalizatutako iruzkin matxistaren kontzientzia hartzean zentratu zen, «Ez da txantxa, matxismoa baizik» lelopean.

Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, helburua izan zen sentsibilizatzea eta indarkeria-egoerak identifikatzen ikastea, haien aurka jardutea eta laguntza eskatzea.




3. **Gizarte-kohesioa.** Ingurumena

Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces

Gure karbono-aztarna % 52,12 murriztu dugu

asangarritasunarekiko konpromisoa eta klima-alaketaren aurkako borroka gure plan estrategikoaren ardatz nagusietako bi dira.

Helburu horrekin, gure zentroetan ingurumen-kudeaketa pixkanaka ezartzen ari gara, eta urtez urte hainbat neurri bultzatzen ditugu ingurumen-inpaktua murrizteko. Horien artean daude jatorri-bermea duen energia elektrikoa erabiltzea, gure ibilgailu-flota unitate elektrikoekin pixkanaka berritzea, klimatizazio-sistemak aerotermiarekin ordeztzea, edo gure zentro batzuetan ibilgailu elektrikoentzako karga-puntuak instalatzea.



2019az geroztik gure aztarna kalkulatzeko, eta orduetik % 52,12ko murrizketa lortu dugu jada.

Horrek gure jardueren ingurumen-inpaktua minimizatzeko egin dugun ahalegina islatzen du, karbono gutxiko ekonomiari lagunduz, garapen ekonomiko eta sozialari uko egin gabe.



Lantegi Batuak

**Ehuneko ehun gai
Cien por cien capaces**



www.lantegibatuak.eus